

Xurдинen mundura

'Xurдин
kobazuloan
galdurik',
asteartean ▶ 6



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Larunbata ▶ 2006-12-30 ▶ IV. urtea ▶ 1.050. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Urrezko Aizkolari Txapelketan Goi Mailako eta Gazteen Binakakoak


ASTEASU ▶ Rekondo leitzarra eta Alkizalete II asteasuarra ariko dira gaur, 23:00etan pilotalekuan

SAIOAK ▶ Finalerdietarako pasea jokoan izango da goi mailakoan eta lehen neurketa binakakoan ▶ 5

TOLOSA ▶

Hodeiertz
abesbatzak
kontzertua
emango
du gaur

Oroith abesbatzarekin
batera ariko da
20:15ean Leidorren ▶ 2



Aralarko ondareari buruzko liburuxka berria kaleratu dute

TOLOSALDEA ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak *Natura Gipuzkoan* bildumaren baitan, *Kulturbideak Aralarren* izenburupean Aralarko ondare historikoa, naturala eta geologiko ezagutzeko aukera eskaintzen duen liburuxka kaleratu berri du. 2.000 ale argitaratu dituzte denera. HITZA ▶ 7



TOLOSALDEA ▶

Manifestazio ixilera deitu dute bihar Aiztondoko 5 udalek

Sakabanaketa salatu eta bailarako presoei babesa emango diete ▶ 4



TOLOSA ▶ MUSIKA

Hodeiertz abesbatzaren kontzertu berezia, gaur

Ordiziako Oroith abesbatzarekin batera eskainiko du emanaldia Leidorren, 20:15etik aurrera; Alos Quartet taldea eta hainbat musikari ere ariko dira

ERREDAKZIOA

Ohitura den bezala, aurten ere Hodeiertz abesbatzak Eguberrietako kontzertua eskainiko du. Emanaldia gaur izango da, Leidor aretoan, 20:15etik aurrera.

Kontzertu honetan Hodeiertz abesbatza Ordiziako Oroith abesbatzarekin batera ariko da. Hala, Claudio Monteverdiren *Eguberri-Bezperak* eskainiko dituzte bi abesbatzen artean. Halaber, bi taldeekin batera Alos Quartet soka-taldea, Gerardo Rifon organojolea eta Ana Otxoa, David Azurza, Jon Etxabe Arzuaga, Karim Diaz eta Jagoba Fadrike bakarlaririk ariko dira, eta baita tronboi tal-



Hodeiertz Abesbatza emanaldi batean, Leidorren. MADDI SORRJA

de bat ere. Sarrerak 6 eurotan salgai egongo dira Leidorreko lehiatilan, eta Kutxanet-en.

Ez da izango Tolosako eta Or-

diziako abesbatzak elkarrekin abesten duten lehendabiziko aldian; izan ere, pasa den azaroren 25ean, esaterako, Enrique

Azurzaren zuzendaritzapean emanaldia eskainiko zuten Ordiziako elizan Hodeiertz eta Oroith abesbatzek, eta hartan ere, Claudio Monteverdiren *Eguberri-bezperak* abestu zituzten. Halaber, beraiekin batera Alos Quartet taldea ere izan zen, gaurko emanaldian izango den bezala. Ordizian eskaini zuten kontzertua Ordiziako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Barroko Aire ekimenaren baitan antolatua izan zen.

Ordiziako kontzertu «arrakastatsuen» ostean, berriro ere bi abesbatzak Leidor areto taula gainean ikusteko aukera izango da, beraz, gaurkoan.

ALEGIA ▶

Egutegia egin dute herriko argazkiekin

Urtero bezala, AKO aldizkari-koek, herriko argazki taldearekin eta Zazpi Astoren Gai- nean bertso eskolarekin elkarlanean egutegi bat egin dute herriko argazki zaharrek. Hala, aurten ere bana- keta egin dute, baina oraindik ere ale batzuk soberan geratu zaizkiela eta nahi dutenek udaletxean izango dituztela eskuragarri adierazi dute.

TOLOSA ▶

Udaberri eta Breogan taldeen elkar trukea

Abenduan, Galiziako Breogan dantza taldearekin emanaldia eskaini behar zuen Udaberri, baina ez zen posible izan. Udaberri hurrengo urtean Galiziako taldearekin elkar trukea egiteko asmoa azaldu du.

TOLOSA ▶ MUSIKA

Emaitza onak Arrasateko Akordeoi Lehiaketan Udal Musika Eskolak

3 urrezko domina, 10 zilarrezko eta 3 brontzezko lortu dituzte akordeoi-joleak

ERREDAKZIOA

Tolosako Udal Musika Eskolak Arrasateko XIX. Akordeoi Lehiaketan parte hartu berri du, eta emaitza honekin bueltatu dira. Hala, arrakastatsutzat jo dute Musika Eskolako akordeoi-joleak eginiko lana, hainbat sari eskuratu baitzituzten.

3 urrezko domina, 10 zilarrezko eta 3 brontzezko lortu dituzte, maila desberdinetan banatuta. Emaitza horiek lortu ahal izateko akordeoi-joleak, «gogor egin dute lan» Amaia Lizaso eta Koldo Tarragona eta Iban Gasdosen zuzendaritzapean. Irakasleak «oso pozik» daudela euren ikasleen lanarekin azaldu dute.

Ondorengoek jaso dituzte



Udal Musika Eskolako akordeoi-joleak. HITZA

dominak: Beñat Izagirre, Julen Arrieta, Ane Urbizu, Uxue Perurera, Saioa Aranburu, Leire Alargunsoro, Aitor Aranburu, Aitzol Ugartemendia, Idoia

Alonso, Miren Pastor, Xabier Ibarguren, Unai Lertxundi, Gorka Yarza, Alberto Irizar, Olatz Fernandez eta Noemi Alonso.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaro zko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu Laskorain 3, kalean, Salgai (Tolosa).
Ileapaindegi egokitua lurre auzoan, Salgai (Tolosa).
Belardenda, Kale Nagusian, negozioa markean, Salgai (Tolosa).
Lurre auzoan. Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal trikitia. Oso modu onean, Salgai (Tolosa).
Lokalak Enperadore kalean eta kale nagusian, Salgai (Tolosa).
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarra, Salgai (Tolosa). Garajeak, Leidor azpian, Alokatzeko (Tolosa). Pisu lurre auzoan, Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak, Araba etorbidean eta Batxiller Zakitibian (geltoki ondoan), Alokatzeko (Tolosa). Lokalak, Arbol de Gernikan, Allirin eta Laskorain kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Ford Scort 1.800 TD. SS-BC. Interesatuak deitu 943 65 52 88 telefono zenbakira.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18 llantak eta sapaia. Egoera onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.
Trikitixa. Trikitixa salgai.

Interesatuak deitu 619 72 82 92 telefono zenbakira.

BESTEAK

Loradenda. Loradenda eskualdatzea Lasarten: 30 urte baino gehiagoko jarduera, materiala eta guzti. Interesatuak deitu 943 36 75 75 edo 626 50 56 89 telefono zenbakietara.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Zer gai jorratuko zenituzte TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN? Zer aldatuko zenuke? Zer gehituko zenuke? Dagoen bezala ongi al dago?» Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia proposatzen dizugun gaiaren inguruan. ▶

KIROLAK ▶



Jokin Errasti partidetakotako batean. HITZA

Errastiren azkena Beotibarren

21 urte profesionaletan aritu ondoren, gaur jokatu du bere azken partida

ESTI EZEIZA

Jokin Errasti pilotariak profesional mailari agur esango dio gaur. 21 urtetako ibilbide luzearen ondoren Beotibar pilotalekuan jokatu du azken partida.

Asegarceren Gabonetako Torneoaren finala jokatu du Aimar Olaizolarekin batera, eta Bengoetxea VI. eta Zearraren aurka. Jaialdia 16:45ean hasiko da eta *Tele 5* kateak eskainiko du zuzenean.

19 urte zituela hasi zen profesional mailan Azkoitiko atzelaria. Zarauzko Zinema pilotalekuan debutatu zuen. Bere esanetan penaz uzten du pilota «hasten zarenean badakizu

egunen batean bukatuko dela, baina beti urruti ikusten duzu. Orain berriz, ikusten dut momentua allegatu dela».

Profesionaletako ibilbideari dagokionean, 1998an Binakako txapeldun izan zen eta 1991ean Bigarren Mailako Banakako txapelduna. 92an berriz, lau t'erdiko txapeldunorde izatea lortu zuen, 2000n, Binakako azpitxapeldun eta 98an, Binakako txapeldunen torneo txapeldunorde.

Azken boladan beste gauza batzuetan ibili da, eta ezin izan dio «behar bezain beste» denbora eskaini pilotari. Hala, ehuneko ehunetan ez bada, hobe dela ez jarraitzea uste du azkoitiarrak.

GIZARTEA ▶

Hirukidekoak Caritas eta Abegikoekin

Hirukiden urtean zehar abian jartzen dituen kanpainen artean dago Eguberrietakoa. Bertan, Abegi eta Caritasentzako produktu iraunkorrak bildu dituzte Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek. Honez gain, sentsibilizazio kanpaina ere bultzatu dute eskolan eta ikasle guztiei ekintza aurkeztu diete hitzalditxo baten bidez.

GIZARTEA ▶

Urte Zahar gauetan kotilloia Beotibarren

Bihar, Abiba enpresak antolatuta, kotilloia egongo da Beotibar frontoian. Disko jai berezia egongo da 01:30etik 07:00etara. Bertan, musika, zozketak, sms-ak bidaltzeko aukera eta abar egongo da. Sarrerak 10 euro balioko du, eta honen truke, kontsumizio bat hartu ahal izando du dohainik. Antolatzaileen esanetan, «ez zaie alkoholik zerbitzatuko 18 urtetik bererako gazteei».

KULTURA ▶

Urteko azken egunean ere, musika nagusi

Urtero bezala, Tolosako Musika Bandak Gabonetan ere musikarekin alaituko ditu hiriko kaleak. Bihar, 20:00etan, Gorriti plazatik abiatuko dira, Urte Zaharreko kalejira egiteko asmoz. Hala, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte, urteko azken ekitaldi honetan, beraiekin batera parte hartzeko, eta bide batez, ongi pasatzeko.

KULTURA ▶



Barroko doinuak Santa Klaran

E. Ezeiza ▶ Musikane goi mailako kontserbatorioko Kup abesbatzak emanaldi berezia eskaini zuen aurrekoan, Santa Klara elizan. Gabriel Baltesen zuzendaritzapean, Euskal Herriko abeslari onetakoak aritu ziren abesten, tartean, tolosar batzuk. JOKEMI SAIZAR

KULTURA ▶



Iñaki karretero kontu kontari

E. Ezeiza ▶ Harri eta zur egon ziren atzo haurrak Iñaki Karreteroren ipuinak entzuten. Honek, Telmo haurraren kontuak eta komerriak kontatu zizkien, eta haurrak pertsonaiekin identifikatuta sentitu ziren. E. EZEIZA

EKONOMIA ▶



300 eta 600 euroko erosketak

Erredakzioa ▶ Igarondo merkatarien elkarteak bezeroen artean zozketatutako txeekek badiutuzte sarituak. 300 eurotako erosketa txekoa Zizurkilgo Pili Kortajarenak eraman du, eta 600 eurotako Tolosako Jose Meguel imazek. HITZA

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberriak ▶

Jose Maria Etxaburu Etxaburu
(Kamiñazpi)

Ara ludia bukatuten dan leku ixiltua.
Gure ibilaldi larria emen amaituten da.
Emen ludi itxi eta zabaltzen yaku zerua;
orok jadesten dogun ondartzu emen asten da.
(Lauaxeta)

Euskal Idazleen Elkarteak bat egiten du uneotan familiaren saminarekin

VILLABONA ▶ POLITIKA

Urte Zaharreko manifestazio ixila

Aiztondoko bost udalek babesturiko deialdia Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik abiatuko da, Villabonako plazaraino



Aiztondo bailarako bost preso politikoak. HITZA

ERREDAKZIOA

Aiztondo bailarako 5 udalek Urte Zaharreko dispertsioaren aurkako manifestazio ixilerako deialdia egin dute. Aiztondoko bost udalak hauek dira: Villabona, Zizurkil, Aduna, Larraul eta Alkiza.

Azken urte hauetan bezala, Aiztondoko beste udalekin batera dispertsioaren eraginez euren etxeetatik urrun dauden gizon eta emakumeak gogora ekarri nahian, manifestazio ixila egingo dute.

Aurtengoan, bihar 19:00etan eta Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik hasita Villabonako plazaraino joango den manifestazio ixila egingo dute, beste urteetan bezala, bailarako guztiei deialdia zabalduz.

Aiztondo bailarako udalek bat egin dute Euskal Herrian barrera hainbat gizarte eragi-

doa». Preso daudenekiko zein euren senide «eta inguru sozial eta politikoarekiko mende-kuan eta xantaian oinarritutako erabaki politikoetan» oinarritzen da.

«Sakabanaketak preso dauden lagunen bizi baldintzak gogortzen ditu», eta zigorra «senide eta inguruko pertsonen zabaltzen die». Izan ere, Etxerat elkartearen arabera, «preso dagoen lagunarekin denbora labur batez egon ahal izateko izugarriko esfortzua suposatzen du, bai denbora aldetik, bai espetxeetara joateko egin behar diren bidaia luzeek eskatzen duten arriskuen aldetik eta suposatzen duen diruzagatik ere».

Datu hauek esandakoa berresten dute: presoak Euskal Herriatik 724 kilometrora daude, batez beste. Bestetik, bisitak mantentzeko urteroko batezbestekoa 13.812 eurokoa da preso senideentzako.

Azkenik, «dagoeneko 16 lagun dira» presoak bisitatzeko desplazamenduetan hildakoa. Gauzak honela, egungo Espainiako eta Frantziako gobernuak kartzela eta zigor arloetan «aurreko gobernuen ildo bera daramatela salatu beharra dago».

«Sakabanaketak preso dauden lagunen bizi baldintzak gogortzen ditu», eta zigorra «senide eta inguruko pertsonen zabaltzen die». Izan ere, Etxerat elkartearen arabera, «preso dagoen lagunarekin denbora labur batez egon ahal izateko izugarriko esfortzua suposatzen du, bai denbora aldetik, bai espetxeetara joateko egin behar diren bidaia luzeek eskatzen duten arriskuen aldetik eta suposatzen duen diruzagatik ere».

Datu hauek esandakoa berresten dute: presoak Euskal Herriatik 724 kilometrora daude, batez beste. Bestetik, bisitak mantentzeko urteroko batezbestekoa 13.812 eurokoa da preso senideentzako.

Azkenik, «dagoeneko 16 lagun dira» presoak bisitatzeko desplazamenduetan hildakoa. Gauzak honela, egungo Espainiako eta Frantziako gobernuak kartzela eta zigor arloetan «aurreko gobernuen ildo bera daramatela salatu beharra dago».

Azkenik, «dagoeneko 16 lagun dira» presoak bisitatzeko desplazamenduetan hildakoa. Gauzak honela, egungo Espainiako eta Frantziako gobernuak kartzela eta zigor arloetan «aurreko gobernuen ildo bera daramatela salatu beharra dago».

ALTZO ▶ KULTURA



Suduperen margolan bitxiak

N. Urbizu ▶ Arraza ezberdinetako haurrak, asmatutako mendiko paisaia lasaiak, altzari hornatuak, etxeko hormak ipuinetako irudi ederrekin... Hau guztia ikusi ahal izan da Altzoko udaletxearen beheko solairuan, eta bihar arte egongo dira. Ederne Sudupe Altzon bizi den tolosarrak dotoreziaz beteriko margolanak ikusteko aukera zabaldu du, pastelarekin, mihise gainean oleoarekin, nahiz tinteekin egin ditu lan guztiak, artelan bakoitza bere xarma eta izaera era berezian islatuz. **N. URBIZU**

ALEGIA ▶ KIROLA

Eguberrietako pilota topaketako finalak, gaur

Pilotalekuan 16:00etan hasiko dira lau norgehiagokak, gehi kadeteen arteko bat

NEREA URBIZU

Gaur arratsaldean Alegiko pilotalekuan jokaturiko Eguberrietako pilota topaketak bukatuko dira, finalak jokatu baitituzte. Bertan 70 pilotaritik gora izan dira, hasi 5 urtetatik eta 13 urteetara arte, eta orotara 50 partidatik gora jokatu dira aste honetan.

Hiru egunetan zehar izan dira partidak, eta gaur

16:00etatik aurrera lau final jokatu dituzte. Horretaz gain, kadeteen mailako partidak ere jokatu dute.

Prebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak izango dira ikusgai, hauen mailakoa izan baita Eguberrietako pilota topaketa.

Bukatu ondoren, sariak banatuko dituzte parte-hartzaile guztientzat eta merienda ere izango dute.

ANOETA ▶ KIROLA

Yoga ikastaroan izena emateko epea zabalik

Goizean edo arratsaldean egiteko aukera izango da eta astean behin egingo dute saioa

N. URBIZU

Anoetako Udalen yoga ikastaroak antolatu nahi ditu. Horretan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du, urtarilaren 5a baino lehen. Anoetako kiroldegian bertan.

Urtarrilaren 9tik martxoaren 27ra iraungo du eta astean behin egingo dute. Bi talde proposatu dituzte, bakoitza- ren ordutegiari hobe egoki-

tzeko; asteartetan 10:00etatik 11:30era, edo asteazkenetan 19:00etatik 20:30era.

Hiruhilabeteak 45 euro bali du, baina beherapenak ere badira: izan ere, kiroldegiko abonatuak %20ko deskontua izango dute; gazte txartela dutenek, %10ekoa, eta familia ugaria, langabetuek, 60 urtetik gorako jubilatuak, pentsiodunek eta ikasleek, berriz, %25eko beherapena.



ASTEASU ▶ KIROLA

Urrezko Aizkolarien Goi Mailako eta Gazteen Binakako Txapelketa, gaur

Jon Rekondo leitzarra Erasun iturendarrarekin ariko da eta Alkizalete II asteasuarra Gorriti huartearrarekin gazte mailako Binakako Txapelketan



Rekondo, ezkerretik hasita lehenengoa, Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan, urtarrilean. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Gaur Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa ospatuko da 23:00etatik aurrera Asteasuko pilotalekuan. Txapelketa honen barruan Urrezko Gazte Binakako Txapelketari hasiera emango zaio, eta honetaz gain, Goi Mailako finalerdietarako pasea jokatu dute goi mailako aizkolariek.

Binakako Gazte Txapelketari dagokionez, Alkizalete II asteasuarra eta Iker Gorriti huartearra Jon Rekondo leitzararen eta Erasun iturendarraren aurka ariko dira. «Entrenamendu batzuk egin ditugu eta gustura aritu gara», azaldu du Jon Re-

kondo leitzarrek. Kategoria honetan bi talde ezberdin daude, lehenengoan aipatutako bi bikoteez gain, Xabier Mindegia labaiendarra eta Jon Rodriguez segoviarra daude alde batetik, eta Oihan eta Garikoitz Larretxea baztandarrak beste. B taldeari dagokionez, Mugerza anaia mutrikuarrak, Aldape eta Atxutxa mutrikuarrak eta Amiano eta Cañamares sakanarrak daude. Bi multzoko lehenengo biak finalerdietara pasako dira.

Goi mailako Urrezko Aizkolaritza Txapelketari dagokionez, gaur Asteasun Txapartegi eta Etxebeste Arrospide eta Mugerzaren aurka ariko dira. Txapelketa hau hilaren 6an hasi zen Lizarran eta bigarren ekitaldia Mutrikan izan zen, hilaren 16an. Bietan Larretxea eta Barberenea izan ziren irabazleak eta jada klasifikatuta daude.

B taldearen ligaxka, berriz, hastear dago oraindik, Olasagasti eta Mindegia min hartuta baitaude. Luis Mari Bengoa, txapelketako antolatzaileak azaldu duenez, «Errege Egunaren ondoren hobekuntzarik ez badago, erabakiren bat hartu beharko dugu».

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Bazterketaren aurrekontu neoliberalak

2007ko Gipuzkoako aurrekontuen proposamena bazterketaren aurrekontuak dira. Batetik, Gipuzkoako erakundeetatik 65.000 gipuzkoar baztertu, Aubren 8 batzarkide kanporatu eta Gipuzkoaren demokrazia zapaldu dutelako. Eta bestetik, gipuzkoarrek egin dituzten eskaerak baztertu egin dituztelako. Adibidez, erraustegien aurkako eskariak, behin eta berriro baztertu dituzte, nahiz eta gipuzkoarren osasuna kalte-zeko arriskua izan.

Bazterketa politikoa gauzatu, aurrekontu neoliberalak burutu eta Espainia eraikitzen ari dira Gipuzkoan, benetako oposizioarik gabe. 2007an, kupo bidez, Estatu Espainiarrari 516 mila milioi euro ordainduko zaizkio. Espainiari Gipuzkoako udal guztiei ordainduko zaiena baino 203 mila milioi gehiago emango zaio. Iaztik, kupoak %22 gora egin duen bitartean, Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak %3 bakarrik igo da. Nahiz eta udal-lek gero eta zerbitzu gehiago ematen ari diren, udalen finantzamenduak ez du gora egiten neurri berean. Eta horrek, sasi-irtenbide gisa, udal zerbitzuen pribatizazioa eragiten

du, zerbitzu publikoak baztertuz.

Zerga-politika atzerakoian bidez, asko irabazten dutenei gutxi kentzen diete eta gutxi irabazten dutenei asko. 4.000 milioi eurotik gorako aurrekontuen %70 langileen eta soldatuekoen poltsikoetatik ateratzen da, baina herri-diru hori kapitalaren alde joaten da. Negozio pribatuak erakunde babespian antolatzen dira, interes publikoen gainetik. Gutxi batzuek negozio handiak egin ditzaten erraustegiekin, AH-Trekin, Kanpo portuarekin edo antzeko makro proiektuekin. Horientzako dirurik badago, baina Tolosako Gerontologiko-arentzako ez.

Ekonomiaren ondasunak gipuzkoar guztien artean banatzea eragozten dute eta justizia birbanatzailea baztertzen. Politika sozialetan Europan baino 7 puntu gutxiago erabiltzen dituzte orain, eta politika sozialak urte askotako hipoteka daitetze, batetik, diru gutxiago bilduko delako zerga lege berriarekin eta, bestetik, dirutza handiak xahutuko direlako aipatutako makro proiektu horietan.

Aurrekontuen proposamenak, euskararen hizkuntz politika berria baztertzen du. Eta oraingo hizkuntza politika eskasa da Gipuzkoan euskaraz bizitzeko eta Euskal Herria euskalduntzeko. Gipuzkoako

ikasleen erdiek ez dute euskaraz bizitzeko behar adina euskaraz ikasten; eta ikasten dutenek lan munduan ez dute erabiltzen; eta komunikabide erdaldunez inguratuta daude. Hizkuntz politika berria ezinbestekoa da euskarari bultzada berri bat emateko.

Labur esanda, 2007ko Gipuzkoako aurrekontuen proposamena, tresna desegokia da gipuzkoarren beharrei eta eskakizunei erantzuteko: Gipuzkoaren lurralde-desoreka, garapen-eredu iraungaitza, aberastasun-banaketa diskriminatzailea eta Gipuzkoa sozialki erdalduna bultzatzen duelako.

INAZIO AGIRRE ARREGI (AUB) ▶ TOLOSA

hitza

Harpidedunen txokoa



HITZAko harpidedunen artean

Jokoaren

10 ale zozketatuko ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: 943 65 56 95



“TOLOSA JOKOAN”
Tribial jolasa CD-an

750 galdera-erantzun Tolosari buruz

1 eta 4 jokalarien artean jolasteko
(adin guztietarako)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

KULTURA ▶

Xurdinekin jolasean

Hiru tolosarrek Sointek produkzio-etxea sortu zuten duela zazpi urte; herriz herri dabilta 'Xurdir kobazuloan galdurik' antzerki musikatuarekin



'Xurdir kobazuloan galdurik' antzerki musikatuaren bost protagonistak taula gainean. HITZA

ENERITZ MAIZ

Duela zazpi urte sortu zuten Sointek produkzio-etxea Sonia Ezkerra, Jose Mari Gorostegi (Tomson) eta Imanol Arabaolaza tolosarrek. Lehen urteetan Tolosan bertan egiten zuten lan, baina eraikina txikiegi geratu zitzaenez lekuz aldatu behar izan zuten, eta gaur egun, Adunako industrialdean aurkitzen dira.

Hiru lagun hauek sortua bada ere, beste bi langile dituzte lan guztia aurrera eraman ahal izateko. Bost lagun hauek, musika, gidoia, arropa, argi, muntaia eta muraletz arduratzen dira. Guztiaz beraiek arduratzen dira eta dena beraiek egina da. Aldiz, lan honen guztiaren azken emaitza taula gainean behar bezala aurkeztea, kontratatuak dituzten bost aktoreei dagokie.

Haurrentzat ikuskizunak eta jolasak prestatzen zituzten eta baita bapatean ipuinak inprobisatu ere. Haurren parte-hartzea beharrezkoa izaten zuten ekitaldi horietan. Eta duela hiru urte bururatu zitzaienten, gaur egun herriz herri darabilten antzezlanaren egitea. Sonia Ezkerra honela azaldu digu «Xurdir izeneko jolas bat genuen eta hau aitzakiatzat hartuta, idatzi genuen gure lehen

antzezlanerako gidoia eta *Xurdir kobazuloan galdurik* izena jarri genion». Duela urte eta erdi taularatu zuten lehen aldiz antzezlan bezala.

Erronka handia

Egindako apustua arrisku handikoa izan bazen ere, gustura daude orain artean izan duten harrerarekin. «Ez gara ohiko pailazoak. Ipotxak dira pertso-

ZENBAIT DATU ▶

SOINTEK

Produkzio-etxea. Sonia Ezkerra, Jose Mari Gorostegi (Tomson) eta Imanol Arabaolaza tolosarrek sortu zuten duela zazpi urte.

'XURDIR KOBAZULOAN GALDURIK'

Antzerki musikatua. Ordubeteko iraupena du eta ipotxen arteko istorioa kontatzen da.
Norentzat. 2-10 urte bitarteko haurrei zuzendua.

naiak eta apaingarriak ere izugarriak dira, aktoreek ipotxak direla eman behar dutelako. Horretarako dena erraldoia da». Hasiera gogorra izan arren, pixkanaka-pixkanaka hasi ziren lanean eta jada, leku askotan aurkeztera iritsi dira ordubeteko iraupena duen lana. «Gipuzkoan herri askotatik pasa gara eta orain Bizkaian ere ari gara lanean. Eta konturatzaren gara jada jendeak eza-gutzen gaituela».

Adierazi digutenez etxeko txikienez gain, gurasoek ere ongi pasatzen dute ipotx hauen istorio eta kantuekin.

Sointek produkzio-etxeok ez daude geldirik eta gogotsu ari dira lanean. Jada hurrengo irailetik aurrera beste antzezlan bat aurkezteko prest dute guztia. Iraila honetan hasi nahi zuten lan berriarekin baina *Xurdir kobazuloan galdurik* antzezlanaren eskariak direla eta urte betez atzeratzea erabaki zuten lan berriaren estreinaldia. Beraz, tolosar hauen lanez gozatzeko aukera izango da aurrera begira ere.

Edozein frontoi edo antzokitano eskaini dezakete heuren antzezlanari; beraiek baitute beharrezko material guztia.

'Xurdir kobazuloan galdurik' antzezlanaren Leidorren

Urte berria hastearrekin batera, urtarrilaren 2an, etxeko txikienek Sointek produkzio-etxeak estreinatuko duen *Xurdir kobazuloan galdurik* antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute. Leidor aretoan izango da arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

2 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua dago nahiz eta, beraiekin joaten diren helduek ere ongi pasatzen duten.

Xurdir eta bere lagunak, inoiz ezagutu den basorik alaienean bizi dira, non ez dagoen tristorerentzat lekurik ez eta, aspertzeko astirik ere. Egun guztia jolastan eta jolas berriak asmatzen pasatzen

dute. Baina, Onto izeneko izaki maltzurak beraien zorientasuna zapuztu nahiko du. Bertaraten diren haurrek, Xurdir eta bere lagunak lagundu beharko diete, Onto maltzurak, ipotx hauen zorientasuna zapuztu ez dezan.

Antzerki musikala izaki, musikari garrantzi handia ematen diote eta hau guzti hau, euskara jatorrean antzeztzen dute.

Abentura politak bezain nahasiak eskainiko dizkiete ikuskizunera hurbiltzen diren haurrei eta hauen gurasoei. Ikasiz, ondo pasatuko dute denek. Izan ere, kantuz eta jolasez betetako mundua ezagutu nahi dutenentzat aproposa da Xur-



Bost protagonisten irudi marraztuak. HITZA

GIZARTEA ▶



Urritzako trikuharria, Amezketan. Mota honetako asko topa daitezke Aralarren. 'KULTURBIDEAK ARALARREN'

Aralarko ondarea, harriz harri

Gipuzkoako Foru Aldundiak 'Natura Gipuzkoan' bildumaren baitan, Aralarko ondareari buruzko liburuxka kaleratu berri du: 'Kulturbideak Aralarren'

AINARA ARRATIBEL (Berria)

30.000 urteko historia. Horixe da Aralarko natur parkeko monumentu megalitikoaren eta aztarnen azpian gordetzen den altxorra. Monumentu horiek gidari ditugula, Aralarko ondare historikoa, naturala eta geologikoa ezagutzeko aukera eskaintzen digu Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratu berri duen liburuxka: *Kulturbideak Aralarren*. *Natura Gipuzkoan* bildumaren lehen liburua da Aralarri eskainitakoa.

«Ez da mendi liburu bat, baina mendizaleentzat oso aproposa da», iritzi dio Alfredo Morazak, liburuaren egileetako batek. Aralarren barrena makina bat harri eta aztarnarekin egiten dute topo mendizaleek, baina gehienetan ez dakite zein balio historiko duten harri horiek. «Liburu hau motxilan eramenez gero, ordea, Aralarko ondarea ezagutu ahal izango dute».

Bi zati ditu liburuxka. Lehenbizikoan, Aralarren bizi izan den populazioaren bilakaera kronologikoa egin dute: lehen aztarnak aurkitu zirenetik gaur egun arte. Ataungo (Gipuzkoa) Usategi haizuloan aurkitu zituzten Aralarren bizi izandako lehen gizakien aztarnak. Egin-dako ikerketen arabera, duela 27.000 urtekoak dira: «Horrek



Ataungo Usategi kobazuloa. Hantxe aurkitu zituzten Aralarko lehen giza aztarnak. 'KULTURBIDEAK ARALARREN'

LIBURUA ▶

Izenburua. Kulturbideak Aralarren.

Egileak. J. Agirre, D. Alvarez, X. Lamikiz, A. Moraza eta J.A. Mujika.

Orrialde kopurua. 118 orrialde.

Argitaratutako ale kopurua. 2.000 ale argitaratu dituzte guztira.

Salneurria. 3 eurotan eros daitezke.

ez du esan nahi lehenago ere Aralarren gizakiak bizi ez zirenik». Hurrengo aztarnak duela 11.000 urtekoak dira, eta Ataungo Pikandietan haizuloan topatu zituzten. Ordurako izotz aroak amaيتuta zeuden, eta klima epelagoa eta hezeagoa zen. Horrek aldaketak eragin zituen ingurunean. Hosto erorkorreko basoak nagusitzen joan ziren: urkiak, ezkiak, haritzak... Ordura arte inguru haietan ezezagunak ziren animaliak hedatzen joan ziren: oreinak,

basurdeak, otsoak, hartzak... Hotzeko animalia eta landare espezie gehienak galdu egin ziren. Dena den, haien fosilak eta izotz garaiko aztarnak Aralarko geologiaren ezaugarri esanguratsuenak dira. Horren adibide dira Arritzagako murrenak, Etitzegi txabolaren inguruko harantxo glazierra eta Pardelutsko txabolaren antzean dagoen zirku glazierra: «Poloetara joan gabe, etxetik geratu topa daitezke halako harribitxi geologikoak».

Klima aldatzearekin batera, han bizi zen gizakia kobazulotik ateratzen hasi zen. Hildakoa lurperatzeko leku gisa erabiltzen hasi ziren kobazuloak. Ondoren, ordea, hori ere kanpoan egiten hasi ziren: trikuharrietan, hain zuzen. Dituaten atalen arabera, hiru motatako trikuharriak bereiz daitezke Aralarren: sarbidea duten hilibiak, galeria estalia dutenak eta trikuharri soilak. Azken horiek dira Euskal Herrian ugariak.

Bost ibilbide

Parkeko geologiaren eta ondarearen ezaugarri nagusia direla kontuan hartuta, trikuharriak dira liburuaren bigarren zatian proposatzen diren bost ibilbideen oinarria. Luzera diferentea duten ibilbideak dira: «Halere, guztiak oinez egin daitezke». Horretarako, osteratxo bakoitzaren mapa topa daitezke liburuan: «Ez dira mendi liburuetan agertzen direnak bezain zehatzak, baina irakurleak arazorik gabe topatuko du bidea». Ibilbide horien bidez, lehen zatian aipatutako ondarea ezagutu eta ikus daitezke.

Amezketatik Igaratzara doan ibilbidea proposatzen dute lehenbizi. Zati horretan, esanguratsuenak dira Buruntzuzin-Ariate inguruan dauden glaziarraren aztarnak: «Euskal Herrian oso leku gutxitan daude hala-koak». Inguru horretan ere megalitiko lotutako aztarna mordo dago. AUSA gaztelua da Larraitzetik Alotzara doan bidean lekurik esanguratsuenak. Defentsarako erabiltzen zen hori, eta «Erdi Aroko aztarna mordo dago topa daiteke han». Urteak dira leku horretan indusketak egiten hasi zirela. Garai hartan han bizi zirenen datu mordo lortu dute horiei esker.

Urkillagatik Lareora doan bidea bi gauzagatik nabarmentzen da: ikazkinen aztarnak eta Lareoko urtegiaren inguruan dauden trikuharriak: «Ez zen oso ohikoa urtegiaren inguruan hilibiak topatzea». Mota desberdinetako 12 trikuharri topa daitezke, bestalde, Ataungo San Martindik gora doan bidean: «Oso leku berezia da. Nekez topa daitezke beste leku batean hainbeste motatako trikuharriak». Bukaearako ibilbiderik luzeena utzi dute: Lizarrutistik Etxegaratera doana. Inguru horietan ere trikuharri mordo dago. Dena den, paisaiagatik da aberatsa leku hori. Gipuzkoako pagadi handi eta basatierna dago han. Lekua oso ederra da.

Harriz harri, Aralar ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du, beraz, *Kulturbideak Aralarren* liburuxka.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Amarozko Antzerki Artisauek antolatuta Behibi's taldearen *Marilo beti lo* antzezlanaz izango da ikusgai arratsaldeko bostetan, Amarozko auzo lokalean.. **Tolosa.** Laskorain Ikastolako antolatuta, Merkatu Txikia egongo da Kultur Etxean urtariraren 7a arte.

ERAKUSKETAK

Amezketeta. Urtariraren 7ra arte ikusgai eta salgai izango dira Maite Gurrutxagaren margolanak, Amezketako tabernan.

Alitzo. Edurne Sodupe tolosarraren margolanak ikusgai izango dira bihar arte, Alitzoko udaletxeko beheko solairuan. Egunero, 17:00etatik 20:00etara, artista bera han izango da.

Tolosa. Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian urtariraren 20ra arte.

Tolosa. Hondakin Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da urtariraren 13a bitarte Aranburu Jauregin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegatu.*

Goiko irrati
(107.0 FM)
 12:00. *kornera.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Tolosatik Sevillara

TOLOSA ▶ Xanti Eraso Artelekuko zuzendariari agurra egin diote Tolosako bere lankide ohi eta lagunek Andaluziara bizitzera dihoalako



Xanti Eraso, bere bikotea eta agur afarian bildu zen lagun taldea afariaren ondoren. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR
Bere bikotea eta urtebeteko alabarekin bizitza berria hastera doa Xanti Eraso (Tolosa 1953) kultur gile pertsonaia Andaluziara.

Tolosako Udal Liburutegian, Laskorain Ikastolan eta kultur teknikari gisa aritu zen lanean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arteleku kultur zentroko zuzendari izatera pasatu baino lehen. Garai haietako lankide

eta lagun batzuk agur afaria egin berri diote, bizitza berrian zorte izan dezan eta hemengo oroigarri gisa euskal agintarien makila oparitu zioten Sevillan izan dezan. Hogei urte egin ditu Erasok

Artelekuko zuzendari gisa eta «aldaketak politikan eta kultur onak» direla adierazi du. Oraingoan, bere postua Lourdes Urrutia gaur egungo kudeatzaileak beteko du. Duela hila-bete batzuk, laster zabalduko den Tabacalera kultur garaikideko zentroaren eduki zuzendari izateko aukera baztertu zuen Erasok.

Lehen udal hauteskundeon ondoren, Xanti Eraso Udal Liburutegiko arduraduna izateko —orduan Artxibo Probin-tzialaren egoitzaren alde batean zegoen— Tolosako lehen kultur teknikari izatera pasatu zen. Bere garaian eraiki zen gaur egungo Kultur Etxea eta hura edukiz betetzearan arduraduna izan zen.

Arteleku zentroan lan handia egin du hogeitau urte hauetan, estatu mailan arte eta kultura munduan erreferentzia izatera iritsi arte.

Datorren astean postu hau utzi egingo du eta bizitza berria hasiko du hemendik mila kilometrotara, baina tarteka Tolosara itzuliko dela esan du.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea	▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa
---	--

hitza agurren tartea **Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

Insurgente Abendak 30 de Diciembre Insurgente Mañak
 Jekiera Urteratik 2 de Enero Apezkoa

Hirusta ikastaroa

Zatuz gu ezagutzera!

www.hirusta.com - 943 65 35 35 - 943 65 35 35

ZAS

soinu ikastaroa

Informatika musikala (Gubase)
 Grabaketa eta masterizazio profesionala
 P.A. eta monitoreak
 Eta aber

943 65 35 35
 www.sointek.net

NESTOR ARDANAZ

ESTUDIO